**A3686**

1996. Oroitza-Txostena. / Donostia Kultura.- Donostia: Donostiako Udala, 1997. 103 p..

CASARES KULTUR ETXEA **Tokiko Bilduma**

A3686

DONOSTIA KULTURA

# 1996



# Oroitza-Txostena

# AURKIBIDEA

**1.- Zuzendaritzaren Iruzkina** 5

**2.- Zerbitzu Orokorrak** 6

**2.1. Pertsonala** 8
- 2.1.1. Lehiaketak. Oposizioak 8
- 2.1.2. Enplegu-Eskaintza Publikoa 8
- 2.1.3. Enplegua Sustatzeko Programa 8
- 2.1.4. Aldi baterako Kontratrazioak 9
- 2.1.5 Euskara-ikastaroetara joateagatiko ordezpenak 9
- 2.1.6. Lan-Egutegiak 9
- 2.1.7. Jubilazioak 9
- 2.1.8. Praktikak 9
- 2.1.9. Pertsonalaren prestakuntza

**2.2. Kontratuak eta Hitzarmenak** 12
- 2.2.1. Administrazio-Kontratuak 12
- 2.2.2. Hitzarmenak 13

**2.3. Laneko Segurtasuna eta Osasuna** 14

**2.4. Euskara** 15
- 2.4.1. Euskara Donostia Kulturaren jardueretan 15
- 2.4.2. Pertsonala euskalduntzeko programa 16
- 2.4.3. Hizkuntz gaikuntzarako programa 17
- 2.4.4. Euskararen erabilera-plana 17

**2.5. Aurrekontuak, Kontabilitatea eta Diruzaintza** 18
- 2.5.1. Aurrekontuak eta Kontabilitatea 18
  - 2.51.1. Ekitaldiko aurrekontua eta likidazioa 18
  - 2.5.1.2. Pertsonal-gastua 18
  - 2.5.1.3. Ondasun eta zerbitzu arrunten gastua 18
  - 2.5.1.4. Inbertsioak 19
  - 2.5.1.5. Diru-sarrerak 20
- 2.5.2. Diruzaintza 20
  - 2.5.2.1. Ordainketak 20
  - 2.5.2.2. Kobrantza 20
  - 2.5.2.3. Ogasuna 22

**2.6. Dirulaguntzak** 23
- 2.6.1. Donostia Kulturari emandakoak 23
- 2.6.2. Donostia Kulturak emandakoak 24

**3.- Komunikazioa eta Irudia** 26

**3.1. Apunteak** 27
- 3.1.1. «Donostia Kultura» txartela 27
- 3.1.2. Agenda 27
- 3.1.3. Publizitatea 27
- 3.1.4. Formatoen eta irudien baterakuntza 28

**3.2. Daturik garrantzitsuenak** 29
3.2.1. Publizitate-argitalpenak 29
3.2.2. Bestelako argitalpenak 29
3.2.3. Komunikabideak 30
3.2.3.1. Prentsa idatziko publizitatea 30
3.2.3.2. Irratiko publizitatea 30
3.2.3.3. Prentsaurrekoak 31
3.2.3.4. Prentsa idatziko aipamenak 31

**4.- Liburutegi-Zerbitzua** 33

**4.1. Apunteak** 34
4.1.1. Liburutegi nagusia 34
4.1.2. Liburutegi Nagusiko haurren atala 35
4.1.3. Kultur Etxeetako liburutegiak 36
4.1.4. Beste erakundeekiko harremanak 36

**4.2. Daturik garrantzitsuenak** 38
4.2.1. Jarduerei buruzko datuak 38
4.2.1.1. Liburutegi Nagusiaren jarduerak 38
4.2.1.2. Liburutegi Nagusiko Haurren Atalaren jarduerak 41
4.2.2. Liburutegi-Zerbitzuari buruzko datuak 42
4.2.2.1. Liburutegi Nagusia, Haurren Atala barne 42
4.2.2.2. Kultur Etxeetako liburutegiak 43
4.2.2.3. Liburutegi-Zerbitzuaren erabiltzaileak biztanleriaren arabera 44
4.2.2.4. Liburutegi Nagusiko bazkideak 44

**5.- Kultur Ekintzarako Zerbitzua** 48

**5.1. Apunteak** 48
5.1.1. Atalak eta gai nagusiak
51
**5.2. Daturik garrantzitsuenak** 51
5.2.1. Kultur Etxeetan burututako jardueren laburpen orokorra
5.2.2. Kultur Etxeetako liburutegiei buruzko laburpen orokorra 52
5.2.3. Kultur Etxekako laburpen orokorra 53
5.2.4. Casares Kultur Etxea 54
5.2.5. Larrotxene Kultur Etxea 57
5.2.6. Loiolako Kultur Etxea 60
5.2.7: Okendo Kultur Etxea 63
5.2.8. Lugaritz Kultur Etxea 66

| | |
|---|---|
| **6.- San Telmo Museoa** | **69** |
| **6.1. Apunteak** | 71 |
| 6.1.1. San Telmo Museoaren birmoldaketa | 71 |
| 6.1.2. Hitzarmenak eta azterlanak | 72 |
| 6.1.3. Museoaren jarduerak | 72 |
| 6.1.4. Beste erakundeekiko harremanak | 76 |
| 6.1.5. San Telmo Museoaren Lagun-Elkartearen jarduerak | 77 |
| **6.2. San Telmo Museoaren jarduerak** | |
| 6.2.1. Zenbait jarduera | 78 |
| 6.2.2. Erakusketak | 78 |
| 6.2.3. Bisitariak | 80 |
| | 81 |
| **7.- Zinea** | **82** |
| **7.1. Apunteak** | 84 |
| 7.1.1. Programazio komertziala | 84 |
| 7.1.2. Programazio ez-komertziala | 84 |
| 7.1.3. Lankidetzak | 85 |
| **7.2. Daturik garrantzitsuenak** | 87 |
| 7.2.1. Zine-programazioaren laburpen orokorra | 87 |
| 7.2.2. Zine komertzialaren emaitzak | 87 |
| 7.2.3. Programazio komertzialaren filmekako banakapena | 88 |
| 7.2.4. Nosferatu programazioaren emaitzak | 88 |
| 7.2.5. Ziklo eta emanaldi bereziak | 89 |
| **8.- Eszena-Arteak eta Musika** | **90** |
| **8.1. Apunteak** | 92 |
| 8.1.1. Neguko denboraldia | 92 |
| 8.1.2. Udako denboraldia | 93 |
| 8.1.3. Euskarazko programazioa | 93 |
| 8.1.4. Koprodukzioak | 93 |
| 8.1.5. Haur-Antzerkia | 93 |
| 8.1.6. Musika | 93 |
| **8.2. Daturik garrantzitsuenak** | 94 |
| 8.2.1. Eszena-Arteak | 94 |
| 8.2.1.1. Victoria Eugenia antzokia | 94 |
| 8.2.1.2. Antzoki Zaharra | 96 |
| 8.2.1.3. Haur-Antzerkia | 97 |
| 8.2.2. Musika | 98 |
| 8.2.2.1. Victoria Eugenia antzokia | 98 |
| 8.2.3. Beste erakundeekiko lankidetza | 98 |
| 8.2.3.1. Gipuzkoako Foru Aldundia | 98 |
| 8.2.3.2. Donostiako Udaleko Gazteria-Zerbitzua | 99 |
| 8.2.3.3. Abesbatzen Federazioa | 101 |
| 8.2.3.4. Syntorama | 101 |
| 8.2.3.5. Get In | 101 |
| 8.2.4. Antzokien alokairua | 102 |

OROITZA-TXOSTEN honetan Kultur Udal Patronatuak 1996. urtean burututako jarduera aurkeztean, Patronatu honek deitura aldatu izan da lehen aipatu nahi duguna, orain DONOSTIA KULTURA izenez aurkezten baita; bi hitz horiek beren soiltasunean gure hiria eta gure jarduera nagusia adierazten dituzte. Irudi korporatiboa ere berritu egin dugu eta oraingoan, bi hitz hauekin batera, hiriko armarriaren osagaiak agertzen dira, kultura, hiria eta udal korporazioa plastikaren bidez ere uztartuz.

DONOSTIA KULTURAk 1996an burututako jardueren artean, badira bi aipamen berezia merezi dutenak; ekipamendu berri bat sortzea, hau da, Egiako Kultur Etxea, eta gure lehenetariko zentro bat, San Telmo Museoa, berritzeko lanak hasi izana.

Egiako Kultur Etxea eraikitzeak hasieran zituen eragozpen eta zailtasunak gainditu ditu piskanaka eta behar duen ekipamenduaz hornitzeko lehiaketetarako deialdiak ere egin dira.

San Telmo Museoari dagokionez, bere garaian Museoa zaharberritzeko adjudikazioa lortu zuen K6 enpresaren lankidetzaz, proiektu orokorretik oraingoz egiteko aukera gehienak dituen zatiari ekiteko lan-egitaraua prestatu da, eta 1996a izan da Museoaren birmoldaketari hasiera eman dion urtea.

DONOSTIA KULTURAk hirian duen presentziari buruz esan dezakegu, kultur agente desberdinekin ditugun harremanen bidez gizartearekiko lotura areagotzen ahalegin berezia egin dugula. Ondorioz, auzo jakin batzuetan presentzia berezia duten zenbait elkarterekin lankidetza-hitzarmenak izenpetu ditugu, kultur etxerik ez duten hiriguneetara ere gure jarduera eramateko.

ZUZENDARITZAK

# Zerbitzu

# 2

# Orokorrak

## **2.-** ZERBITZU OROKORRAK

2.1. PERTSONALA
2.2. KONTRATUAK ETA HITZARMENAK
2.3. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA
2.4. EUSKARA
2.5. AURREKONTUAK, KONTABILITATEA ETA DIRUZAINTZA
2.6. DIRULAGUNTZAK

Donostia Kulturan 122 pertsona ari dira lanean, ondoko lan-taldeetan banatuta:

14 funtzionari
76 lan-legepeko finko
20 aldi baterako lan-legepeko
12 Enplegu-Sustapenerako Programaren barruan

## 2.1.1. LEHIAKETAK, OPOSIZIOAK

1996. urtean zehar ez da lehiaketa edo oposizio berririk deitzeko premiarik izan. Oinarriak 1995ean onartu zitzaizkien lehiaketak gauzatzeko bidea urratu da, ondoko lanpostuetarako:

- Udal Liburutegiko Menpeko Pertsonalaren Arduraduna
- Liburutegiko Laguntzaileak (2 lanpostu)

## 2.1.2. ENPLEGU-ESKAINTZA PUBLIKOA

Donostiako Udalaren Enplegu-Eskaintza Publikoan barne hartuta daude oraindik ere ondoko lanpostuak:

- Udal Liburutegiko Zuzendari plaza bat
- Kultur Etxeko Arduradun plaza bat
- Liburutegi Laguntzaileentzako bi plaza

## 2.1.3. ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA

| | LANPOSTUA | HASIERA DATA | AMAIERA DATA |
|---|---|---|---|
| 6 Liburutegiko laguntzaile | 3 Liburutegi Nagusia | 96-azar-11 | 97-maia.-10 |
| | 1 Okendo KE | 96-azar.-11 | 97-maia.-10 |
| | 1 Larrotxene KE | 96-azar.-11 | 97-maia.-10 |
| | 1 Casares KE | 96-azar.-11 | 97-maia.-10 |
| 3 Administrari Laguntzaile | 1 Liburutegi Nagusia | 96-azar.-18 | 97-maia.-17 |
| | 2 Zerbitzu Orokorrak | 96-azar.-18 | 97-maia.-17 |
| 2 Mantenimenduko langile | 2 Zerbitzu Orokorrak | 96-azar.-13 | 97-maia.-12 |
| 1 Ondoko Balioanitza | Loiolako KE | 96-azar.-12 | 97-maia.-13 |

### 2.1.4. ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAK

1996. urtean zehar, ondoko kontzeptuetan bakarrik egin dira aldi baterako kontratazioak:

- lan-metaketa
- obra edo zerbitzu bakoitzeko kontratuak
- ordezpenez, zerbitzua eman gabe utzi ezin zenean.

### 2.1.5. EUSKARA-IKASTAROETARA JOATEAGATIKO ORDEZPENAK

- Kontratazio, Erosketa eta Pertsonalaren Arduradunaren ordezpena, egunean bi orduz
- Liburutegiko Arduradun len ordezpena, egunean bi orduz

### 2.1.6. LAN-EGUTEGIAK

1996. urtean zehar, hamabost lan-egutegi desberdin landu eta bete dira, eta horrek, argi eta garbi adierazten du Donostia-Kulturako pertsonalak gauzatzen dituen lan desberdinen aniztasuna eta konplexutasuna.

### 2.1.7. JUBILAZIOAK

Ondoko jubilazio aurreratuak izan dira:
- Ofizial Balioanitz Laguntzailea 1
- Kultur Etxeetako Etxezain 1
- Garbiketako 2 enplegatu

### 2.1.8. PRAKTIKAK

Azkenaldi honetan interes handiagoa nabaritu dugu ikastetxeen aldetik, beren ikasleek praktikak Kultur Udal Patronatuan egin ditzaten. Gertakari hau, orain arteko prestakuntza arautuaren osagarri gisa prestakuntza-modalitate berriak abiarazi izanak bultzatu du batez ere. 1996an ondoko pertsonek egin dituzte Patronatuan beren praktikak:

| PERTSONEN KOPURUA | ZEIN IKASTEGITIK ETORRIAK | ZEIN ZENTROTAN ARITU DIREN | IRAUPENA |
|---|---|---|---|
| 2 | Cebanc | Liburut. Nag. Haur-Atala | 96aben.12-97apir.11 |
| 1 | Cebanc | San Telmo | 96aben.12-97apir.11 |
| 1 | Cebanc | Casares K.E. | 96aben.12-97apir.11 |
| 1 | Cebanc | [illegible]urutegi Nagusia | 96aben.12-97apir.11 |
| 1 | Cebanc | Victoria Eugenia antzokia | 96aben.12-97apir.11 |
| 1 | Cebanc | Komunik.-Irudi Unit. | 96urt.16-96ots.5 |
| 1 | Cebanc | Loiola K.E. | 96aben.12-97apir.11 |
| 3 | Fil./Letr. F. Deustu Donos. | San Telmo | 96abuz.19-96irail.25 |
| 1 | Peñaflorida B.I. | Okendo K.E. | 96apir.15-96ekai.21 |
| 2 | Peñaflorida B.I. | Loiolako K.E. | 96apir.15-96ekai.24 |
| 1 | Peñaflorida B.I. | Casares K.E. | 96apir.15-96ekai.26 |
| 1 | Peñaflorida B.I. | Lugaritz K.E. | 96apir.15-96ekai.27 |
| 1 | Peñaflorida B.I. | Larratxo K.E. | 96apir.15-96ekai.21 |
| 2 | Peñaflorida B.I. | Liburut. Nag. Haur-Atala | 96apir.15-97ekai.27 |
| 1 | Martuteneko L.H.I. | Liburutegi Nagusia | 96urt.8-96ots.23 |
| 1 | Peñaflorida B.I. | Liburutegi Nagusia | 96apir.15-97ekai.27 |
| 1 | Andoaingo Zine/Bideo Esk. | Victoria Eugenia antzokia | 96aben.16-97apir.4 |
| 1 | Nazaret | Liburutegi Nagusia | 95azar.13-96mai.13 |
| 1 | Nazaret | Liburut. Nag. Haur-Atala | 95azar.6-96mar.6 |
| 2 | Nazaret | Casares K.E. | 95azar.13-96mai.13 |
| 1 | Nazaret | San Telmo | 95azar.6-96mai.6 |
| 1 | Nazaret | Okendo K.E. | 95azar.6-96mar.6 |
| 2 | Nazaret | Lugaritz K.E. | 95azar.13-96mar.13 |
| 1 | Nazaret | Diruzain. Aurrek. Saila | 95azar13-96mai.13 |
| 1 | Nazaret | Komunik.-Irudi Unit. | 95azar.6-96mar.6 |
| 2 | Nazaret | Loiola K.E. | 95azar.6-96mar.6 |
| 1 | Baionako Merk. Bazkundea | San Telmo | 96urt.16-96ots.5 |
| 1 | Almen Ikastola | Zine Unitatea | 96apir.15-96ekai.20 |
| 1 | Almen Ikastola | Loiolako K.E. | 96apir.10-96ekai.15 |
| 1 | VFBB - Berlín | Loiolako K.E. | 96irai.2-97apir.30 |
| 1 | Fachhochschule Osnabrück | San Telmo | 95urr.2-96mar.28 |

## 2.1.9. PERTSONALAREN PRESTAKUNTZA

1996an zehar, Patronatuko zuzendaritzak bultzada berezia eman dio pertsonalaren prestakuntzaren atalari. Horretarako, informazioa pertsonalari helarazteko mekanismoa abiarazi da, informazio hori pizgarri gisa erabiliz, Patronatu honetan lan egiten duten guztiek beren prestakuntza profesionala eguneratzeari arreta berezia jar diezaioten.

Mekanismo horren funtzionamendua ondoko hau da: prestakuntza-ikastaro, kongresu, jardunaldi eta abarri buruz Patronatura iristen den informazio guztia zuzendaritzan biltzen da. Zuzendaritzaren laguntzarako teknikariak informazio horrekin taula batzuk lantzen ditu eta unitate edo zerbitzu bakoitzeko arduradunaren bitartez pertsonalari helarazten zaizkio. Honela, 1996an zehar 15 informazio-taula banatu dira.

Ondorioz, Donostia Kulturako 27 pertsona 42 ikastaro, kongresu, jardunaldi eta abarretara joan dira eta 1.471.609 pezetako inbertsioa egin da.

## 2.2.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATUAK

1996. urtean zehar ondoko lehiaketetarako deialdiak egin ziren, zenbait zerbitzu adjudikatzeko:

| LEHIAKETAREN XEDEA | BALDINTZA-PLEGUEN ONESPENA | ADJUDIKAZIOA | |
|---|---|---|---|
| Objektu txiki eta paketeen garraioa | martxoaren 28an | Aztarnak | ekainaren 3an |
| Tramoia eta abarretarako zerbitzuak | martxoaren 28an | Astesa | uztailaren 22an |
| Laguntza-zerbitzuak | martxoaren 28an | Sureuskadi | ekainaren 3an |
| Itzulpen-aholkularitza | martxoaren 28an | Bitez | ekainaren 3an |
| Kultur Etxeei buruzko iritzi-azterlana | martxoaren 28an | hutsik | ekainaren 3an |
| Propaganda eta publizitatearen banaketa | ekainaren 3an | hutsik | urriaren 11n |
| Ikastaroak egitea | uztailaren 22an | Zenbait enpresa | irailaren 23an |
| Casareseko irrati-tailerra | uztailaren 22an | Uhinak | abuzt. 12an |
| Saneamendu-obrak eta San Telmoko dorrea | irailaren 23an | Amenabar | azaroaren 26an |
| Egiako KEko erabilera anitzeko Aretoaren diseinu eta eszena-ekipamendurako proiektua | irailaren 6an | Chemtrol | abend. 28an |
| Egiako KEko altzarien hornidura, ezarpena eta muntaia | uztailaren 23an | BZ2 Mobiliario S.L. | azaro. 20an |
| Egiako KEko altzariteria bereziaren hornidura, ezarpena eta muntaia | uztailaren 23an | BZ2 Mobiliario S.L. y Montte | azaro. 20an |
| Egiako KEko tresneria informatikoaren hornidura, ezarpena eta muntaia | irailaren 24an | Informática El Corte Inglés, S.A. | azaro. 14an |
| Egiako KEko liburutegiko Hitzaldi-Aretoko eta Fonotekako ikusentzunezko ekipamenduaren hornidura, ezarpena eta muntaia | uztailaren 23an | Dardarak | azaro. 14an |
| Donostia Kulturako udal liburutegien sareko dokumentuak katalogatzeko aholkularitza-zerbitzua | irailaren 24an | Eusko Eki, S.L. | azaro. 19an |
| Hemerotekarako kontserbazio-kaxen erosketa | 1995eko azaroaren 16an | Txertoa | ekainaren 3an |

Era berean, zenbait lan burutzeko 29 administrazio-adjudikazio gauzatu ziren.

## 2.2.2. HITZARMENAK

1996an zehar ondoko hitzarmenak formalizatu dira:

- Eusko Jaurlaritzarekin: haurren eta gazteen irakurketaren inguruko prestakuntza eta orientabide profesionala hobetzera bideratutako zenbait programa garatzeko lankidetza-hitzarmena.

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin:

  a. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuarekin, Victoria Eugenia Antzokia, Antzoki Zaharra eta Egiako Kultur Etxeko ekipamenduak zenbait materialez hornitzeko lankidetza-hitzarmena.

  b. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Departamentuarekin, Gipuzkoako zenbait udalerritan gazteei zuzendutako zine-maratoiak egiteko lankidetza-hitzarmena.

- Donostiako Zinemaldiarekin, bakoitzaren jarduerak gauzatzean elkarri lankidetza teknikoa eskaintzeko eta Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko ekipamendua Dolby Digital, DTS eta SDDS soinu-sistemen bidez osatzeko.

- Patronatuko zerbitzu eta zentro desberdinetan lan-praktikak egiteko 9 hitzarmen, ondoko erakundeekin: INEM, Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatea, Donostiako campusa, Peñaflorida Batxilergo-Institutua, CEBANC Ikastegia, Nazaret, Baionako Merkataritza eta Industri Bazkundea, Almen Ikastola, Lanbide-Prestakuntza Sustatzeko Berlingo Elkartea (V.F.B.B.) eta Fachhochschule Osnabrück.

- la Caixarekin, "Donostia Kultura" txartelaren sustapen-kanpaina garatzeko eta ondoren funtzionatzen jartzeko hitzarmena.

- Udalaren Gazteria-Zerbitzuarekin, zenbait programa gauzatzeko hitzarmenak.

- Kultur etxerik ez duten hiriko zenbait auzotako elkarteekiko hitzarmenak: Etxadi Kultura eta Kirol Elkartea (Aiete), Auzolan Auzo Elkartea (Igeldo), Ikasbide Kultur Elkartea (Amara Berri), Antxeta Elkartea (Egia), Mundo Nuevo Centro de Animación Comunitaria (Amara Zaharra) eta Añorga Kultur eta Kirol Elkartea (Añorga).

1996. urtean zehar, ihazko azaroan argitaratutako Lan-Arriskuei Aurrea Hartzeko Legea aplikatu da. Beraz, Prebentzioko Ordezkariak eta Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzordeko kideak izendatu ziren. Era berean, Batzorde horren funtzionamendu-araudia landu zen eta ondoren onespena eman zitzaion.

Komiteak bere lana Udalarekin koordinaturik egin zezan, Udaleko Batzordekide bati Patronatuko Komitearen bileretara bertaratzeko gonbidapena egin zitzaion eta Udalaren aldetik gonbidapen hau onartu zen.

Egindako lanen artean, Patronatuko zenbait lantokiko Laneko Segurtasun eta Osasunarekin zerikusia duten gaietara hurbildu izana aipa dezakezu.

## 2.4.1. EUSKARA DONOSTIA KULTURAREN JARDUERETAN

1996an zehar, Patronatuaren jarduera eta zerbitzu desberdinetan euskara mailaka ezartzen jarraitu dugu. Garrantzi berezia duten hiru gai besterik ez ditugu azalduko:

a.- Zine-programazioa: lortu da aurrerapenik kopuruari dagokionez (euskaraz filme gehiago proiektatu dira) baita kalitatearen arloan ere; adibidez, «Mugarik gabeko emakumeak» zikloko filmerik garrantzitsuena "La moitié du ciel d'Allah", Djamila Sahraui filmearen zuzendaria proiekzioan izan zelarik, euskaraz azpidatzita eman zen. Jendearen erantzuna (emanaldi bakoitzeko 150 ikusle, batezbeste) oso baikortzat har daiteke.

b.- Kultur Etxeetako ikastaroak: 1996/97 ikasturterako ahalegin berezia egin da Kultur Etxeetako ikastaroetan euskararen presentzia areagotzeko: euskaraz eskainitako ikastaroen kopurua eta aniztasuna areagotu dira eta ikastaro-mota hau beste Kultur Etxe batzuetara ere zabaldu da, orain arte Lugaritzen bakarrik eskaintzen baitziren. Hau guztia ondoko datuetan islatzen da:

| | euskaraz | gazteleraz | elebietan | guztira |
|---|---|---|---|---|
| 1995-96 | 27 | 74 | 0 | 101 |
| 1996-97 | 35 | 63 | 5 | 103 |

Gehikuntzarik handiena helduen ikastaroetan eman da:

| | euskaraz | elebietan |
|---|---|---|
| 1995-96 | 15 | 0 |
| 1996-97 | 23 | 2 |

Halere, aurten ZAZPIKI aldizkaria argitaratzeari utzi zaio, oraingoz, informazioa euskaraz hobeto bideratzeko beste moduren bat aurkitu bitartean.

## 2.4.2. PERTSONALA EUSKALDUNTZEKO PROGRAMA

**DONOSTIA KULTURAKO LANPOSTUEN EGOERA**

| | HE badutenak | HE ez dutenak | GUZTIZKOAK |
|---|---|---|---|
| Bakanteak | 10 | 14 | 24 |
| Beteak | 52 | 36 | 88 |
| **GUZTIZKOAK** | **62** | **50** | **112** |

**DONOSTIA KULTURAKO PERTSONALAREN EGOERA**

| | |
|---|---|
| HE badutenak | 52 |
| HE ez dutenak | 36 |
| salbuetsiak | 2 |
| HE kreditatu behar dutenak | 34 |
| HE kreditatu dutenak | 24 |
| HE kreditatu ez dutenak | 10 |
| HEren bat kreditatu dutenak | 4 |
| HE batere kreditatu ez dutenak | 6 |
| ikasten ari direnak | 4 |
| ikasten ari ez direnak | 2[1] |

[1] Pertsona bat gaixotasun-baja hartuta

### 2.4.3. HIZKUNTZ GAIKUNTZARAKO PROGRAMA

Hizkuntz Gaikuntzarako programari dagokionez, Donostia Kulturako 6 pertsona aritu dira programa honen barruan 1996an zehar. 6 pertsona hauetatik 4 aurten hasiak dira eta 2 lehendik ari ziren jadanik.

### 2.4.4. EUSKARAREN ERABILERA-PLANA

Udaleko beste sail batzuetan bezala, Donostia Kulturan ere Udalak onespena emandako Euskararen Erabilera-Planari hasiera eman zaio. Donostia Kulturako 19 enplegatu dira guztira gaur egun plan honen barruan ari direnak.

## 2.5.1. AURREKONTUAK ETA KONTABILITATEA

### 2.5.1.1. EKITALDIKO AURREKONTUA ETA LIKIDAZIOA

Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak, 1996ko urtarrilaren 12an egindako bileran eta Udalaren Osoko Bilkurak 1996ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, 1.041.326.000,- pezetako zenbatekoa zuen urteko aurrekontua onetsi zuten.

Aurrekontu hau, Patronatuko Zuzendaritza Batzordeak 1996ko uztailaren 22an eta abenduaren 18an egindako bileretan onetsitako kreditu-bideratzearen ondoriozko aurrekontu-gehikuntzari eta aurrekontu-aldaketei buruzko hurrenez hurreneko espedienteen arabera, 1.196.950.441,- pezetako zenbatekoa du orain.

1996. urterako hasierako aurrekontuak %5,04ko gehikuntza zuen 1995ekoaren aldean eta gauzatuko denaren aurreikuspenak %14,94ko gehikuntza adierazten du 1996rako hasieran onetsitakoaren aldean.

Gauzatze-maila altu honen arrazoiak ondokoak dira, besteak beste:

### 2.5.1.2. PERTSONAL-GASTUA

a.- Aurreko urteetan bezala, enplegua sustatzeko programaren barruan zenbait kontratazio egin da. Horien gastua 7.876.589,- pezetakoa izan da dirulaguntza kontuan hartuta eta 10.555.611,- pezetakoa guztira.

b.- Langileei zuzendutako euskara-ikastaroen ondorioz egin diren kontratazioetarako aurrekontua 500.000,- pezetan gehitu da eta guztizko gastua 1.515.874,- pezetakoa izan da.

c.- Atal honetan, lehen aipatutako bi atalez gain, aipatzekoa da 4.284.410,- pezeta gehiagotan (%0,84) gauzatu dela, gehienbat aurrekontuan ikusitako lan-igoeraren eta hitzarmenaren arabera benetan aplikatutakoaren arteko diferentziaren eraginez (+%0,5 + 10.000,- pta. langile bakoitzeko), eta bestalde, 65 urte bete baino lehen jubilatutakoen sariengatik.

### 2.5.1.3. ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTEN GASTUA

Atal honek, aurreikusitakoa baino gauzatze-maila handiagoa izan du %7,24ko diferentziaz, ondoko arrazoiengatik:

a.- Zenbait erosketa egiteko edo zenbait jarduera burutzeko jasotako dirulaguntzak, kasu batzuetan aurrekontuan ikusi gabe geratu zirelako edo aurreikusitakoa baino kopuru handiagoz jaso direlako.

Adibide gisa hauek aipa genitzake:

| Aurrekontuan ikusitakoa baino kopuru handiagoz jasotako dirulaguntzak | | | |
|---|---|---|---|
| ZERBITZUA | DIRULAGUNTZAREN JATORRIA | DIRULAGUNTZAREN XEDEA | KOPURUA |
| San Telmo Museoa | Aldundia | Serten mihiseak zaharberritzea | 6.250.000 |

| Aurrekontuan ikusi gabe geratu ziren dirulaguntzak | | | |
|---|---|---|---|
| ZERBITZUA | DIRULAGUNTZAREN JATORRIA | DIRULAGUNTZAREN XEDEA | KOPURUA |
| Liburutegia | Eusko Jaurlaritza | Liburu-erosketa eta jarduerak | 2.896.020 |
| Liburutegia | Eusko Jaurlaritza | Lurralde Historikoko liburut.-sareraren jard. | 2.925.000 |
| Kultur Etxeak | Kutxa | Jarduerak | 1.500.000 |

b.- Patronatuak, aurreikusitakoa baino programazio zabalagoa gauzatu ahal izan du, Antzerkiari dagokionez batez ere, eta horren ondorioz sarrerak eta gastuak handiagoak izan dira.

c.- Egiako Kultur Etxea egokitu eta abiarazteko helburuz, nola pertsonaleko hala ondasun eta zerbitzu arruntetako zenbait gastu egin direlarik, hauen zenbatekoa 5.949.290,- pezetakoa izan da.

### 2.5.1.4. INBERTSIOAK

Hasierako aurrekontua 50.000.000,- pezetakoa bazen ere, Zuzendaritza Batzordeak 1996ko uztailaren 22an egindako bilkuran onetsi zuen kreditua bideratzeko espedientearen arabera, 107.979.000,- pezeta gehitu zitzaion eta azkenean aurrekontua 157.979.000,- pezetakoa izan zen.

Kreditu-bideratze hau ondoko dirulaguntzen kargura egin zen:

| ZERBITZUA | DIRULAGUNTZAREN JATORRIA | DIRULAGUNTZAREN XEDEA | KOPURUA |
|---|---|---|---|
| San Telmo Museoa | Udala<br>Eusko Jaurlaritza<br>Aldundia | Erreforma | 9.572.000<br>40.000.000<br>5.000.000 |
| Antzokiak | Aldundia<br>Udala | zenbait inbertsio | 10.000.000<br>5.693.000 |
| Egiako K. Etxea | Udala | zenbait inbertsio | 37.714.000 |

Gastua ondoko atalen arabera gauzatu da:

| ZERBITZUA | GASTUAREN IZAERA | KOPURUA |
|---|---|---|
| Egiako Kultur Etxea | Zenbait obra | 5.776.597 |
| | Tresneria informatikoa | 7.468.101 |
| | Altzariak eta beste zenbait tresna | 32.482.916 |
| | Bibliografi Fondoak | 13.800.000 |
| | Liburutegiko lapurreta-aurkako sistema | 907.700 |
| | Ikusentzunezko sistema | 2.436.812 |
| | Minusbaliatuentzako plataforma | 1.183.200 |
| | Arotzia metalikoa | 614.235 |
| | Erabilera anitzeko aretoaren diseinua | 1.160.000 |
| | Segurtasun-bonbinak | 720.911 |
| | Argazki-tailerra | 759.481 |
| | Errotulazioa | 2.000.000 |
| | Erabilera anitzeko aretoko ekipamendua | 13.697.142 |
| | Segurtasuna | 4.030.000 |
| | Bestelakoak | 676.905 |
| Antzokiak | Antzoki Zaharreko mahai-jasogailua | 1.781.180 |
| | Maskor akustikoa hobetzea | 5.614.803 |
| | Ganbara beltzak (V. Eugenia-Antzoki Z.) | 1.804.711 |
| | Soinu-sistemak (V. Eugenia-Antzoki Z.) | 5.593.989 |
| | Proiekzio-kabinako mater. Antzoki Z. | 339.926 |
| | Antzoki Zaharreko eszenatokiko lanak | 530.120 |
| San Telmo | Proiektuen idazketa eta obren zuzendaritza | 15.979.016 |
| | Dorreak zaharberritzea | 38.592.984 |
| **GUZTIRA** | | **157.950.729** |

#### 2.5.1.5. DIRU-SARRERAK

Pertsonal-gastuen ataleko eta ondasun eta zerbitzu arrunten gastuen ataleko 1. eta 2. puntuetan azaldutako arrazoiak direla medio, sarreren aurreikuspena gastuak gehitu diren maila berean gehitu dira. Honela, beraz, Patronatuko Zuzendaritzak urte honetako uztailaren 22an eta abenduaren 18an onetsitako Aurrekontu-Aldaketen bitartez, aurrekontuari 157.624.341,- pezeta gehitu zaizkio.

### 2.5.2. DIRUZAINTZA

#### 2.5.2.1. ORDAINKETAK

Urtean zehar hornitzaileei egindako ordainketak hiru modalitateren bitartez gauzatu dira, kasu bakoitzean gastuaren izaera eta egoera ekonomikoa kontuan hartuz. Honela, beraz:

| | |
|---|---|
| Inbertsio-gastuak | 90 egunetara. |
| Gastu arrunta | 90-120 egunetara. |
| Berehala ordaintzeko gastuak (begiraleak,taldeen cacheta,etab.) | 15-30 egunetara. |

Orokorrean, hilabete bakoitzeko 10. eta 30. egunak izan dira 1995ean ezarritako ordainketak egiteko egunak. Halere, fakturazioak hilabete bakoitzeko 30. eta 20. egunean egon behar du kontabilitate-zerbitzuan.

1.196 milioi pezetako bolumena hartzen duten ordainketak egiteak zer nolako lana sortzen duen ulertzeko, kontuan hartu behar da Donostia Kulturan kontabilitate-agirietan sekulako bolumena sorrarazten duten kopuru txikiko ordainketa ugari egiten dela. Izan ere, 1996an, gastu-baimenen kopurua (zehazkiago esatearren ADO dokumentuak aipatu behar lirateke) 11.513koa izan da, hau da, egunean 47 kontabilitate-agiri, batezbeste, kontzeptu horretan bakarrik.

#### 2.5.2.2. KOBRANTZA

Patronatuaren diru-sarrera motak lau taldetan bana daitezke:

a.- Dirulaguntzak
b.- Sarreren salmenta
c.- Alokairuak
d.- Ikastaroak eta bestelakoak

a.- Dirulaguntzak, kasu bakoitzerako ezarritako eskakizunak betetzen diren heinean kobratzen dira, Donostiako Udalaren dirulaguntzari dagokionez salbu, azken hau hileroko diruzaintza-premiei aurre egin ahal izateko aurreko hilean egindako eskaeren

arabera hilero kobratzen baita.

b.- Sarreren salmentako dirua unean bertan kobratzen denez, ez du gerora beste kobrantza-lanik sorrarazten.

c.- Alokairuei dagokienez, %60 edo %100 aldez aurretik kobratzen denez, berankortasun-arazoak gutxitu egin dira.

d.- Ikastaroak ere izena ematerakoan kobratzen dira.

**2.5.2.3.** OGASUNA

1995ean, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, 9.148.306,- pezetako likidazioa jaso genuen gure alde. Gure datuen arabera jaso beharreko kopurua 11.666.777,- pezetakoa zenez, erreklamazio ekonomiko-administratiboa ezarri genuen.

Bestalde, 1996ko maiatzaren 13ko dataz, Patronatuak 1990. eta 1994. urteetako behin-behineko likidazioen aurka tartejarritako erreklamazioei buruz Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak emandako ebazpena jaso genuen, erreklamazio horiek ezesten zituena. Gai horren inguruan Udalaren Unitate Finantzarioari kontsulta egin eta behin, Patronatuaren aldeko epairik lortuko ez zela eta, prozesuari jarraipenik ez ematea erabaki zen; gainera, erreklamazio horiekin kontentziosoan aurrera egitearen kostua handia izango litzateke.

Beraz, Patronatuak hainbanakoaren araua aplikatuz egiten du Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpena, bai baititu jarduera salbuetsiak (ordaindutakoan) baina lotua (jasotakoan) hala nola zine, antzerki eta musikako sarrera-salmenta, liburutegiak, museoa eta ikastaroak, eta beste zenbait jarduera zergari lotuta daudenak, hala nola alokairu, argitalpen, babesle, fotokopia, telefono eta edari-makinen diru-sarrerak.

Ikastaroengatiko diru-sarreren salbuespena errekurtsoa jarrita dago eta Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean alegazioen eta froga-proposamenaren idazkia aurkezteko zain dago oraindik.

## 2.6.1. DONOSTIA KULTURARI EMANDAKOAK

1996an zehar, ondoko koadroan azaltzen diren dirulaguntzak eman zaizkio Donostia Kulturari; bakoitza, adierazten den kopuruaz eta ondoan aipatutako erakundeak emana:

| ERAKUNDEA | UNITATEA | AZALPENA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritza | Liburutegi-Zerb. | Liburutegiko fondoak | 5.460.740 |
| Eusko Jaurlaritza | Liburutegi-Zerb. | Haur eta Gazteentzako literaturaren sustapena | 1.885.280 |
| Eusko Jaurlaritza | San Telmo | Museoaren berrikuntza | 40.000.000 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | San Telmo | Museoaren berrikuntza | 6.000.000 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | San Telmo | Argazki eta ehunen Katalog. eta zaharberr. | 800.000 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Eszena-Arteak | Programazioa | 1.270.300 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Eszena-Arteak | Euskal kantagintza | 574.200 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Zerbitzu orokorrak | Dirulaguntza nominatiboa | 3.000.000 |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | Zerbitzu orokorrak | Inbertsioak | 10.000.000 |
| Kutxa fundazioa | Kultur Ekintzarako Zerbitzua | Kultur Etxeen jarduerak | 2.000.000 |
| **GUZTIRA** | | | **70.990.520** |

## 2.6.2. DONOSTIA KULTURAK EMANDAKOAK

1996. urtean zehar, Donostiako udal-barrutiko elkarteek garatzen dituzten kultur jarduerei dirulaguntzak eman zitzaizkien. Dirulaguntzetarako bideratu zen guztizko kopurua 21.708.000,- pezetakoa izan zen, 98 elkarteren artean honela banaturik:

| | |
|---|---|
| Urteko programa monografikoak | 7.810.000 pta. |
| Urteko programa disziplinartekoak | 1.690.000 pta. |
| Programa puntualak | 1.500.000 pta. |
| Elkarteekiko berariazko hitzarmenak | 4.208.000 pta. |
| Bestelako dirulaguntzak | 6.500.000 pta. |
| **GUZTIRA** | **21.708.000 pta.** |

# Komunikazioa

# 3

# eta irudia

## **3.-** KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

3.1. APUNTEAK

3.2. DATURIK GARRANTZITSUENAK

Patronatuaren korporazio-irudia eguneratzeko egindako lehiaketa eta gero, urte honetako uztailean irudi berria ezartzeari ekin zitzaion, eta ondorioz, lehengo izendapena aldatu zen DONOSTIA KULTURA izena finkatuz. Izen korporatibo berria ezartzeak izendapen zehatz, bizi eta dinamikoagoa eman dio erakundeari, aldi berean hizkuntzen bikoizdura saihesten duena eta erabiltzaileak errazago identifika dezakeena. Hautatu den irudia Patronatuko zentro eta unitate guztietarako bat eta bakarra denez, ez dago logotipo ugari erabili beharrak sortzen duen zailtasunik eta mezua ez da sakabanatzen. Eta, azkenik, irudiak Udalaren lotipoa gogorarazten du, bere osagai batzuek biltzen baititu, baina modu autonomoan funtzionatzeko aukera utziz. Sei hilabete honetako esperientzia guztiz baikorra eta egokia izan da.
Irudi-aldaketa honekin batera, jarduketa berriak gauzatu dira:

## 3.1.1. "DONOSTIA KULTURA" TXARTELA

"la Caixa" erakunde finantzarioarekin sinatutako akordioaren ondorioz, izen hori duen txartela ezarri da. Kontu korrente baten kargura zabaltzen den txartela da eta erabiltzaileari zenbait abantaila eskaintzen dio: Patronatuko jardueretan eta txartelak erostean %10eko beherapena, liburutegietako maileguak doan eta hiriko kultur jarduerei buruzko informazioa eskaintzen duen agenda etxean jasotzea, besteak beste. Lehen ezarpen-aldiaren ondoren, gero eta eskaera gehiago jaso ditugu eta urte-amaieran 1.412 ziren guztizko titularrak.

## 3.1.2. AGENDA

Akordio horrexen indarrez, "la Caixa"k finantzatzen du Donostia Kulturak sortzen dituen jarduera guztiak eta hirian egiten diren garrantzitsuenak bilduz, Patronatuak hilero argitaratzen duen "Agenda". Guztira, 10.000 ale argitaratzen dira eta txartelaren titularrei bidatzen zaizkienak kenduta, gainontzekoak hiriko puntu estrategikotan banatzen dira (hiriko zentro desberdinetan ezarritako 90 erakustoki).

## 3.1.3. PUBLIZITATEA

Jarduera-kopuru ugariek eta hauek iragartzeko egunero argitaratu beharreko oharrek sortzen zuten sakabanatzea saihestearren, el Diario Vasco egunkariarekin akordio bat ezarri zen, iragarki guztiak egun jakin batzuetan metatzeko, eta honela, gure jarduera osotasunean eta bildurik agertzeko. Uztailean hasi ginen estrategia hau aplikatzen, irudi-aldaketarekin batera. Aldaketa honen ondorioz, jarduera batzuk, eskema orokor baten barruan sartu diren heinean indarra galdu badute ere, taldeko irudiak asko irabazi du (eskaintza askoz ere eraginkorragoa da) eta gure jardueren aurkezpena ere hobetu egin da. Publizitate-planteamendu hau datorren urtean beste komunikabide inprimatu batzuetara ere zabal daiteke.

## 3.1.4. FORMATOEN ETA IRUDIEN BATERAKUNTZA

Korporazio-irudi berria ezarri izanak gure argitalpenen formatoak bateratzea eskatzen du eta argitalpen-motaren arabera hiru eredu desberdin sortu dira. Honen ondorioz, eta irudiaren berdintasunari esker, gure argitalpen guztiak berehala identifikatzen dira bere kanpo-itxura ikusi orduko. Kanpoko aldaketarekin batera, kasu batzuetan edukia bera eta jardueren zabalkunde-mota ere aldatu egin dira, argitalpenaren errentagarritasuna bilatuz. Aldaketarik nabarienak Kultur Etxeetako programetan egin dira eta zentro hauetako jardueren inguruan argitaratzen ziren liburuska ugariak argitalpen gutxiagotan biltzea lortu da. Egitarau bakoitzeko aleen kopurua ere gutxitu egin da eta hauek barnean erabiltzeko utzirik (eszena-arte eta zineko egitarauen kasuan, besteak beste), hirian zehar zabaltzeko beste formato bat erabiltzen da.

Aipatutako jarduketa horiei guztiei esker, Patronatuaren kanporako sustapena eta irudia zabaltzean aurkitzen genuen eragozpenik handiena gainditu dugu: sakabanatzea. Behin-betiko balantzea egiteko oraindik goizegi den arren, lehen hilabete hauetako esperientziak, hartutako bidea egokia dela eta aurreko urteetan aipatzen ziren arazoak konpontzeko bidean gaudela erakutsi digu.

Kultur Udal Patronatuak komunikabideetan zuen presentzia handiari eutsi zaio, nahiz eta, agian aurreko urtearen aldean nolabaiteko jaitsiera nabaritu den. Edonola ere, transmititzen den irudia baikorra da eta komunikabideen trataera, orokorrean, egokia da.

## **3.2.1.** PUBLIZITATE-ARGITALPENAK:

| UNITATEA | ARGITALPENAK | |
|---|---|---|
| **Liburutegiak** | | |
| **Haurren atala** | 2 egitarau | |
| **Liburutegi Nagusia** | 13 egitarau/gidaliburu | |
| **Kultur Etxeak** | | |
| **Casares** | 19 egitarau | 9 kartel |
| **Larrotxene** | 19 egitarau | 6 kartel |
| **Loiola** | 11 egitarau | 1 kartel |
| **Lugaritz** | 20 egitarau | 6 kartel |
| **Okendo** | 16 egitarau | 10 kartel |
| **Museoa** | 9 katalogo eta orri didaktiko | |
| **Zinea** | 17 programa | |
| **Nosferatu** | 3 | |
| **Beldurrezko zinearen astea** | 1 | |
| **"Donostia 13" fanzinea** | 5 | |
| **Laburmetr. programak** | 8 | |
| **Eszena-arteak** | 4 hiruhileko programazio-egitarau<br>2 ABONU-egitarau bereziak<br>7 ikuskizunetako egitarau berezi | |
| **Musika** | 1 egitarau (posta-txartela) Jazz-Entzunaldiak<br>4 "Donostian Kantuz" egitarau | |

## **3.2.2.** BESTELAKO ARGITALPENAK

AGENDAren 6 zk. argitaratu dira. Tirada: 10.000 ale.

## 3.2.3. KOMUNIKABIDEAK

Informazio-buletinak: 323

### 3.2.3.1. PRENTSA IDATZIKO PUBLIZITATEA

| EGUNKARIA | IRAGARKIAK |
|---|---|
| **Diario Vasco** | 458 iragarki uztailera arte eta data horretatik aurrera hitzartutakoa (Orrialde osoa igandeetan eta orri 1/2 ostiraletan) |
| **Egin** | 31 iragarki |
| **El Mundo** | 39 iragarki |
| **Egunkaria** | 71 iragarki |
| **Deia** | 4 iragarki |
| **Irutxulo** | 20 iragarki |

### 3.2.3.2. IRRATIKO PUBLIZITATEA

| EMISOREA | IRAGARKIAK |
|---|---|
| **Radio San Sebastián** | 200 iragarki (Donostia Kultura eta Radio San Sebastián irrati-katearen artean antzerki-programari eta Beldurrezko Zinemaren Asteari buruz sinatutako lankidetza-hitzarmenaren ondorioz). Gainera asteroko mikroespazioak ematen dira ostegunetan eta Patronatuaren asteko programazioari buruz hitz egiten da bertan, Victoria Eugenia antzokiaren alokairu-ordainetan. |
| **Cadena 100** | 120 iragarki (Lugaritz Kultur Etxearen alokairu-ordainetan) |

## 3.2.3.3. PRENTSAURREKOAK

| | |
|---|---|
| **Prentsaurrekoak** | 131 |

## 3.2.3.4. PRENTSA IDATZIKO AIPAMENAK

| BIDEA | AIPAMENAK | |
|---|---|---|
| **Diario Vasco** | 1.052 | |
| **Deia** | 712 | |
| **Egin** | 185 | |
| **Egunkaria** | 160 | |
| **El Mundo** | 281 | |
| **El Correo** | 575 | |
| **Gainontzekoak** | 326 | Diario 16, ABC, La Vanguardia, Revistas varias (Fotogramas, Cinemanía, Fantastic Magaczın, Chica, La Semaine du Pays Basque, Semana, etab.) |

Irrati eta telebistako aipamenak ez dira kontabilizatu, baina aipatzekoak dira Televisión Española, Antena 3, Tele 5 eta Canal Plus kateetan jarduera zinematografikoak aipatuz azaldutako informazioak. Bertako irratietan eta ETBn, baita Televisión Españolaren eskualde-zirkuituan ere, garrantzi handiko presentzia dugu.

# L i b u r u t e g i



# Z e r b i t z u a

## **4.-** LIBURUTEGI-ZERBITZUA

4.1. APUNTEAK

4.2. DATURIK GARRANTZITSUENAK

1996ak aurreko urteen ezaugarri berberak izan dituelarik, nolá liburutegietako bazkideen kopuruak hala egindako maileguenak, gora egin dute.

Bazk .. e berrien kopurua 2.719koa izan da eta horrek %16ko gehikuntza esan nahi du; maileguen kopuruari dagokionez, 130.473 egin dira guztira, hau da, eguneko 539 liburuki mailegatu dira batezbeste, ondoko taularen arabera:

| | BAZKIDE BERRIAK | BAZKIDEAK GUZTIRA | EGINDAKO MAILEGUAK | MAILEGUAK EGUNEKO |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 2.941 | 16.936 | 125.668 | 515 |
| 1996 | 2.719 (%16+) | 19.958 | 130.473 (%8+) | 539 (%5+) |

Datu hauek udal liburutegi-zerbitzuaren finkapen-prozesua berresten dute eta dagoeneko hasita dagoen informatizazio-prozesua osatzeko gero eta premia handiagoa nabarmentzen dute, katalogazio-lanak eta fondoen maileguak arintzeko eta erabiltzaileei udal-liburutegi guztietako fond-.:k eskuragarri jarri ahal izateko.

## 4.1.1. LIBURUTEGI NAGUSIA

Urte honetan zehar ez da esku-hartze berezirik izan, ez eraikinean ez eta Liburutegiaren funtzionamenduan ere.

Kontsultarako eta mailegurako zerbitzuen azken bi urteei buruzko datuak ondoko hauek dira:

| | BAZKIDE BERRIAK | BAZKIDEAK GUZTIRA | EGINDAKO MAILEGUAK | MAILEGUAK EGUNEKO |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 450 | 4.658 | 29.084 | 124 |
| 1996 | 738 (%16+) | 5.396 | 31.160 (%7+) | 127 (%2+) |

Zerbitzuei dagokienez, bai kontsultakoak eta bai mailegukoak gutxi gora-behera %7an gehitu dute jarduera. Erabiltzaileen kopurua (maileguetarako 738 bazkide berri) eta jarduera ere aregotu izanak, eraikinak zituen arazoak larriagotu egin ditu eta gaur egungo zerbitzu-prestazioari eutsi nahi bazaio, nahitaezkoa da eraikinean esku-hartzeren bat planteatzea.

Bestalde, ihaz prentsarik zaharrena gehiago ez hondatzeko hasitako jarduketen barruan, hondatutako aleak gordetzeko kaxa bereziak erosi dira eta ale horiek ez dira jendeak

kontsultatzeko eskuragarri egongo. Gainera, bilduma hauen kontsulta errazteko, bi mikrofilm-irakurgailu berri erosi dira.

Lan teknikoari dagokionez, urte-amaieran kontsulta-fondoaren katalogazio informatizatuari ekin zaio. Aipatu beharrekoa da, halaber, erabat instalaturik eta erabilgarri geratu direla sareko CD-ROM irakurgailua eta Interneterako sarbidea, nahiz eta osagai biak ere barneko lan-tresna gisa erabiltzen diren, eta ez jendeak kontsultak egiteko.

Azkenik, liburutegiak aurreko urteetan hasitako jarduera egonkorrei eutsi zaiela esan behar dugu, hau da, koadernazioko eta literatur sorkuntzako tailerrei, hala nola hileroko literatur solasaldiei eta bertako idazleen galeriari. Jarduera hauei beste jarduera puntual batzuk erantsi zaizkie, hala nola ipuin-irakurketa, hitzaldiak eta beste erakunde batzuekin lankidetzan antolatu diren bi ziklo, bata Peña y Goñi-ren inguruan eta bestea Pio Barojaren omenez, Koldo Mitxelena Kulturunearekin.

## 4.1.2. LIBURUTEGI NAGUSIKO HAURREN ATALA

Haurren atalak, joan den urtean eraikin berrira lekualdatu ondoren hasitako hazkundeari eusten dio. Horren adierazgarririk argiena 698 bazkide berriak dira.

| | BAZKIDE BERRIAK | BAZKIDEAK GUZTIRA | EGINDAKO MAILEGUAK | MAILEGUAK EGUNEKO |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 734 | 1.743 | 32.939 | 114 |
| 1996 | 698 (%40+) | 2.509 | 27.059 (%18-) | 113 (%7-) |

Haur-Liburutegiaren zerbitzuan garrantzizko aldaketa izan da, maiatzerako maileguaren nahiz kontsultaren inguruko lan guztiak mekanizatzea ahalbidetu duen mailegu-zerbitzuaren informatizazioa, alegia. Nola Haur-Liburutegi honetan hala Larratxokoan, teknika informatikoak eransteak eta lokal berriak zabaldu izanak gora-behera bereziak sorrarazi dituzte bazkide berrien kopuruan eta egindako maileguenean.

Argazkien katalogazioari 1996ko amaiera aldean eman zitzaion hasiera, Patronatuak berak jarritako fondoen bidez finantzaturik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak emandako dirulaguntzarekin osatuz. Lana burutzeko, enpresa espezializatu baten zerbitzuak kontratatu ziren. Argazki-bildumaren katalogazioaz gain, garbitzeari ere ekin zaio, hala nola kontserbazio- eta artxibo-material berezietan gordetzeari; material horiek ondasun-mota honen hondatze-prozesua geldiarazteko araudia betetzen dute, jakina denez, bereziki hauskorra izaten baita. Inbentarioa euskarri informatikoan jasoko denez, datuak azkarrago lortu ahal izango dira eta bildumaren ezagupena eta kontrola arinagotu egingo da.

- Kontserbazioa eta Zaharberritzea

. 1996. urtean zehar, Museoko erakusketa iraunkorreko artelanak zaharberritzeari jarraipena eman zaio, okerren daudenei lehentasuna emanez, eta aldi baterako erakusketetarako eskatu direnak ere zaharberritzen ari dira.

. Serten mihiseen zaharberritzea. Maiatzaren 2tik aurrera ekin zaio 1932az geroztik elizako hormei itsatsita dauden Serten mihiseak zaharberritzeko trataerari. Han ezarri eta urte gutxitara agerian geratu ziren horma horien hezetasun-arazoak, eta 1950ean lehen zaharberritzea behar izan zutelarik, 1960an berriro garbitu eta bernizatu egin behar izan ziren. Oraingo zaharberritze-lana egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak 6.250.000 pezetako dirulaguntza eman du. Lan horiek Museoko zaharberritze-pertsonalak eta 8 hilabeterako kontratatuariko hiru zaharberritzailek egin dute. Hamaika mihisetatik zortzi zaharberritu dira eta geratzen diren hiruak handienak dira.

- Azken eskurapenak:

1996. urtean zehar Museoaren fondoak emarien bitartez gehitu dira:

. Arte Ederrak:

Angel PASCUAL RODRIGO: «Ezin dut gehiago... zioela zirudien». Eskuzko litografia, 63x22 cm. Diptikoa. Egilearen emaria

Gabriel RODRIGUEZ: «Bar el Reino». Serigrafia, 23,5x25 cm. Gestión Cultural y Comunicación-en emaria

Rafael RUIZ BALERDI: «Retrato de Chumy Chúmez». Oleoa/mihisean. José Mª González Castrillo jaunaren emaria

. Etnografia:

Posta-txartelen bilduma (30) «Euskal paisaia eta eszena tipikoak». Rafael Zulaika jaunaren emaria

Saten beltzezko emaztegai-jantzia (1903) López Zubiria anai-arreben emaria

- Zabalkundea, jendearekiko arreta eta argitalpenak

| BISITARI-KOPURUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Guztira** | **Norbanak.** | **Taldeak** | **Ikasleak** | **Besteak** |
| **1995** | **67.457** | **60.056** | **7.401** | **4.458** | **2.943** |
| **1996** | **70.169** | **59.293** | **10.876** | **4.622** | **6.254** |

1996a Museoa bisitatu dutenen artean aipatzekoak dira:

- Departamento de Educación y Acción Cultural de Museos, DEACek Bilbon ospatutako XI. Jardunaldiko parte-hartzaileak

- Sociedad Española de Cerámica y Vidrio delakoak gure hirian antolatutako Zeramika eta Beiraren Kongresu Nazionalean parte hartutako kongresistak

- Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kulturako Mahaikideak

- Medikuntzako Nobel saria duen Patarroyo jn. Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore jaunarekin batera

| IKASLE-TALDEAK 1996AN | | |
|---|---|---|
| **Eredua** | **Taldeak** | **%** |
| **A** | **71** | **25,7** |
| **B** | **46** | **16,7** |
| **D** | **159** | **57,6** |
| **Guztira** | **276** | **100** |

Aurreko urteetan bezala, eskari handiena izan duen atala, ikasle-taldeen aldetik batez ere, Etnografiarena izan da

Argitalpenak:

. berrargitaratuak:
Serten mihiseei buruzko orri didaktikoa
Museoko minigida (gazteleraz)

. argitarapen berriak:

5 erakusketetako 5 liburuska didaktiko-informatiboak

2 erakusketetako 2 kartelak

Ekintza, jardunaldi eta abarretan parte hartzea

. «Europako Batasuneko Museoen sektoreko enpleguari buruzko proposamenak»; lehen aldiz parte hartu dugu Europako Batzordeak (5. Zuzendaritza) babestutako Programa Europar batean. Europako 7 herrialdetako 21 museo izan ziren partaide.

. Museo Pirinearren sarea sortzeko Lourdesen izandako I. Pirinear Topaketak

. Madrilen izandako Museologiaren I. Bienala

. Amics dels Museus de Catalunya eta Instituto de Estudios Norteamericanos erakundeek Antolamendu, Gestio eta Komunikazioari buruz antolatutako mintegiak

. Departamento de Educación y Acción Cultural de Museos, DEACen XI. Estatu-Jardunaldiak. Animatzaile Pedagogiko izan zen bertan eta Museoko Zuzendariak parte hartu zuen Jardunaldietako Antolaketa-Batzordean integraturiko Zientzia-Batzordeko kide gisa.

Pertsonalaren Prestakuntza

. Museoko Animatzaile Pedagogikoa Eusko Ikaskuntzak gure hirian antolatzen duen Jakitez programan izan zen, baita Pompeu Fabra Unibertsitateak «Komunikazioa eta Museoak» gaiaren inguruan Bartzelonan antolatutako ikastaro batean eta Eusko Ikaskuntzak «Erdi Aroko Artearen Berrikuspena» gaiari buruz antolatutako beste batean ere.

. Zaharberritze-Tailerreko arduraduna Gipuzkoako Kultur Ondasunen Kontserbatzaile eta Zaharberritzaileen Elkarteak antolatutako Ikastaroan izan zen.

**b.- Aldi baterako erakusketak:**

1996an zehar aldirako 11 erakusketa egin dira San Telmo Museoan eta horietatik 3 Museoak berak ekoiztu ditu:

- Juan Gorritiren «Araitz zatiak»:Museoaren barne-ordenari dagokionez, erakusketa honek ahaleg[illegible]ndia eskatu zuen, elkarren ondoko hiru areto eta eliza bera okupatu baitzituen; erakusketa hau zela eta, bisita kolektibo bat antolatu zen Araitz haranera. Erakusketak 8.137 bisitari izan zituen.

- Andres Nagelen «Propuestas urbanas»: erakusketa honen bidez Museoak urrats bat eman zuen hirirantz, Tolosa hiribidean unibersitate-campusaren aurreko glorietan jarritako Nagelen

eskultura instalatu zenean antolatu baitzen.

- Ignacio Rabagoren «Habitación numerada» eta «Galerna» instalazioa. Erakusketak 3.744 bisitari izan zituen.

- «Nafarroako Garaia/El hórreo navarro» erakusketa, Museoak 1995ean antolatu bazuen ere, 1996an Nafarroako hiru herritan zehar ibili da (Lizarra, Lumbier eta Oronoz-Mugaireko Bertiz Jaurerrian). Guztira 7.058 pertsonek bisitatu dute.

Museoak antolatutako erakusketetan, hirurogeita lau etnografia-pieza erabili izan dira.

c.- Hitzaldiak eta lankidetzak

- Museoak antolatutako hitzaldiak:

. «Araitz zatiak. Fragmentos de Araitz». Hizlaria, Juan Gorriti

. «Baserri inguruko kultur ezaugarri eta baloreen gizarteratzeko bidea». Antolatzailea, Emakume Baserritarraren Elkartea

- Artelekurekiko lankidetza , Marcelí Antúnez Rocaren «Epizoo» performancean; San Telmo Museoko elizan egina

- Eszena-Arteetako Tailerrarekiko lankidetza Museoko Klaustroan hiru antzezlan antolatzen

- Musika Hamabostaldiarekiko lankidetza «Interprete gazteak» zikloan, emanaldiak San Telmo Museoko elizan eginez

- Sociedad Española de Cerámica y Vidrio eta INASMETekin Zeramika eta Beiraren Kongresu Nazionala antolatzeko lankidetza. «Pasaiako portzelana» erakusketa San Telmo Museoan prestatu zen

- Zaharrean erakundeak Museoaren instalazioetan antolatutako Merkataritzako Jardunaldi Teknikoan lankidetza

## 6.1.4. BESTE ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

1996an zehar, 14 erakunderekin izan zen lankidetza eta laurogeita sei pieza utzi ziren aldi baterako erakusketetarako:

- Armagintzako pieza 1
- Arte Ederretako 44 pieza
- Etnografiako 41 pieza

## 6.1.5. SAN TELMO MUSEOAREN LAGUN-ELKARTEAREN JARDUERAK

a.- Hitzaldiak:

- «Restauración de obras pictóricas», San Telmo Museoko zaharberritze-tailerreko arduradunaren eskutik

- Mahaingurua: «San Sebastián, ciudad de museos» hiriko museoetako zuzendariek parte harturik: Diozesiarra, Itsas-Museoa eta San Telmo

b.- «Hileko pieza»: museoko pieza baten inguruko jarduera. Ekainean hasi zen eta hilabete bakoitzeko lehen igandean jarraitzen du.

c.- Francisco Aranaz Darrás jauna San Telmo Museoaren Ohorezko Lagun izendatzeko ekitaldia

## 6.2.1. ZENBAIT JARDUERA

| DAIA | | AZALPENA | IZENBURUA | PARTAID. |
|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | urt. 31 | Hitzaldia | «Araitz zatiak. Fragmentos de Araitz». Hizlaria: Juan Gorriti. | 80 |
| Otsaila | otsa. 14 | Mus. Lagun-Elk. hitzaldia | «Restauración de obras pictóricas». Hizlaria: Rosi Lasarte. | 80 |
| Martxoa | mar. 31 | Performancea | «Epizoo». Egilea: Marcelí Antúnez Roca. | 120 |
| Maiatza | maia. 15 | Hitzaldia | «Baserri inguruko kultur ezaugarri eta baloreen gizarteratzeko bidea». Hizlaria: Emakume Baserritarren Elkartea. | 30 |
| | maia. 18 | Bisitaldi gidatua | Museoen eguna zela eta; San Telmo Museoaren Lagun-Elkartearen eskutik. | 30 |
| | maia. 23 | Urteko Batzarra | San Telmo Museoaren Lagun-Elkartea. | 16 |
| Ekaina | ekain. 2 | Hileko obra. Museoaren Lagun-Elkart. | Pieza: Alonso Idiáquez jaunaren hilobi-monumentua. Hizlaria: Luis Cañamero | 16 |
| | ekain. 11 | Kongresua | Zeramika eta Beiraren Kongresu Nazionala | 50 |
| | ekain. 21 - 23 | Antzezpenak | Antolatzailea: T.A.E. | 340 |
| Uztaila/ abuztua | uztai. 7 | Hileko obra. Museoaren Lagun-Elkart. | Pieza: «Un canal de Venecia», Gassís Minondo. Hizlaria: Marisa Bilbao. | 40 |
| | uzt-12/abuz-30 | Jokoa | Museoa Zoologikoa ez izan arren... animaliz beteta dago. | 1.723 |
| | abuz. 4 | Hileko obra. Museoaren Lagun-Elkart. | Pieza: «Felipe III.aren erretratua». Pantoja de la Criz. Hizlaria: Pablo Becerra | 35 |
| | abuz. 9 - 17 | Kontzertuak | Zikloa: «Intreprete gazteak». Antolatzailea: Musika Hamabostaldia | 980 |

## 6.2.1. ZENBAIT JARDUERA (JARR.)

| DATA | | AZALPENA | IZENBURUA | PARTAID. |
|---|---|---|---|---|
| Iraila | irail. 1 | Hileko obra. Mus. Lagun-Elk. | Pieza: Ruiz Balerdi. Hizlaria: Javier Garín | 20 |
| | irail. 29 | Bisitaldi ofiziala | D.E.A.C.en XI. Jardunaldietako kideak | 30 |
| Urria | urria. 6 | Hileko obra. Mus. Lagun-Elk. | Pieza: Las tías. Jesús Olasagasti. Hizlaria: Ramón Ayerza. | [illegible] |
| | urria. 10 | Liburuaren aurkezpena | Izenburua: «Artistas vascos». Bilboarte argitaletxea. | 120 |
| Azaroa | urria. 2 | Hileko obra. Mus. Lagun-Elk. | Pieza: Es. Espinarreko 4 taula: S. Lukas, S. Markos, Ezekiel eta David erregea. Hizlaria: Pilar Muñoa. | 84 |
| | azar. 14 | Mahaingurua | Izenburua: «San Sebastián: ¿ciudad de museos?» Antolatz.: San Telmo Museoaren Lagun-Elk. | 44 |
| | azar. 21 | Merkataritzako Jardunaldi teknikoa | Izenburua: «De centro histórico a centro comercial». Antolatzaile: Zaharrean. | 140 |
| Abend. | abend. 1 | Hileko obra. Mus. Lagun-Elk. | Pieza: Kaikuak. Hizlaria: Fermín Leizaola. | 73 |
| | abend. 1 - 8 | Jarduera | Hiesaren Nazioarteko Eguna. Antolatz.: Hiesaren Aurkako Hiritarren Batzordea. | 150 |
| | abend. 14 | Museoaren Lagun-Elkatea | Francisco Aranaz jauna San Telmo Museoaren Ohorezko Lagun izendatzeko ekitaldia | 30 |
| | abend. 18 | Liburuaren aurkezpena | Izenburua: «Del Cromañón al Guggenheim». Egilea: Joseba Zulaika. | |
| GUZTIRA | | | | 4.281 |

## 6.2.2 ERAKUSKETAK

| DATA | IZENBURUA | BISITARIAK | EKOIZPENA | |
|---|---|---|---|---|
| | | | NORBER. | BESTER. |
| 95-urt-29tik3-mar-3ra | «Araitz zatiak. Fragmentos de Araitz»; Juan Gorriti. | 8.137 | * | |
| 96-ots-6tik96-ots-25era | «Imagínate Euskadi» | 2.087 | | * |
| 96-mar-14tik96-api-3ra | «Sísifo» eta «Últimos deseos»; Antoni Abad. | 1.690 | | * |
| 96-jun-15etik96-uzt-7ra | Kursaalgunea - Centro Kursaal. | 7.425 | | * |
| 96-uzt-12tik96-abu-18ra | «Propuestas urbanas»; Andrés Nagel. | 16.567 | * | |
| 96-uzt-29tik96-ira-1era | «Ver para no creer». Errealitatearen pertzepzioa. | 24.033 | | * |
| 96-ira-19tik96-ira-29ra | «Amores de cine». | 3.356 | | * |
| 96-urr-10tik96-aza-17ra | «Artistas vascos». | 3.978 | | * |
| 96-urr-18tik96-aza-24ra | «Habitación numerada» eta «Galerna»; Ignacio Rábago. | 3.744 | * | |
| 96-abe-11tik96-abe-29ra | «Imagínate Euskadi». | 1.946 | | * |
| 96-abe-19tik97-urt-26ra | «Komikiak 100» | 1.072 | | * |
| GUZTIZKOAK | | **74.035** | **3** | **8** |

## 6.2.3 BISITARIAK

| DATA | INDIBIDUALAK | | KOLEKTIBOAK | | GUZTIZKOAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | BISITARIAK | EKINTZETARA BERT. | IKASLEAK | BEST. TALDEAK | |
| Urtarrila | 3.919 | 100 | 362 | 183 | 4.564 |
| Otsaila | 2.500 | 50 | 669 | 136 | 3.355 |
| Martxoa | 1.756 | 160 | 434 | 209 | 2.559 |
| Apirila | 1.561 | 0 | 322 | 320 | 2.203 |
| Maiatza | 1.520 | 76 | 600 | 758 | 2.954 |
| Ekaina | 4.383 | 499 | 874 | 1.206 | 6.962 |
| Uztaila | 5.064 | 255 | 89 | 1.482 | 6.890 |
| Abuztua | 22.112 | 1.015 | 65 | 911 | 24.103 |
| Iraila | 4.005 | 3.386 | 23 | 193 | 7.607 |
| Urria | 2.460 | 182 | 105 | 519 | 3.266 |
| Azaroa | 1.794 | 268 | 460 | 60 | 2.582 |
| Abendua | 1.895 | 433 | 591 | 205 | 3.124 |
| **GUZTIZKOAK** | **52.969** | **6.424** | **4.594** | **6.182** | **70.169** |

# Z i n e m a

# 7

## ZINEA

7.1. -APUNTEAK

7.2. - DATURIK GARRANTZITSUENAK

Donostia Kulturaren programazioa, urte honetan, ondoan adierazi bezála egituratuta egon da:

1.- Programazio komertziala

2.- Programazio ez-komertziala
 a) Nosferatu programazioa
 b) Zikloak eta emanaldi bereziak:
 - Antzoki Zaharrean
 - Kultur Etxeetan

## 7.1.1. PROGRAMAZIO KOMERTZIALA

1996a, Donostia Kulturako zine-programazio komertzialak filme espainiarrak eta jatorrizko bertsioak, azpitituluak gazteleraz dituztela, proiektatu dituen bigarren urtea izan da.

Merkatuaren espazio honen barruan kalitateko filmeak eskaintzea lortu dugu, nahiz eta emaitza ekonomikoak ez diren izugarrizkoak izan. Filme horiek, bestela, ez lirateke Donostiako karteleran azaldu ere egingo. Bestalde, Savoy Zineak bertsio bikoiztuen merkatua lortzeko SADE enpresarekin lehian aritzeko aukera egin zuen, baina, oso emaitza txarrak izan ondoren ateak itxi behar izan ditu.

Urte honetako ikusleen batezbesteko kopurua 1995ekoaren oso antzekoa izan da. Zine-Unitateak, merkatuaren bilakaera epe ertainean ebaluatu ahal izan bitartean mota honetako filmeak eskaintzen jarraitzea gomendatzen du. Batez ere, Garberako 7 aretoak (Petit Casino Zineak berehala ixtea eragingo dutenak eta, ziurrenik geroago Trueba Zineak ere bai) 1997an zabalduko direla kontuan hartuz, baita 1998an Irun aldean beste gune berri bat zabalduko dela ere.

Dena den, eta joan den urtean aditzera eman genuen bezala, programazio honen egonkortasuna eta zehaztapena «gainditu gabeko ikasgaia» denez, Donostia Kulturari kezka sorrarazten dio.

## 7.1.2. PROGRAMAZIO EZ-KOMERTZIALA

### a.- Nosferatu programazioa

Nosferatu programazioa da oraindik ere gure programazio ez-komertzialik garrantzitsuena. Ikuslego finkoa du eta mota honetako programazio batean, jatorrizko bertsio azpititulatua izanik, Estatu Espainiarrean emanaldi bakoitzeko batezbesteko ikusle-kopururik handiena biltzen duena.

Zikloak Valentziako Generalitateko Filmotekarekin eta Imaxe Arte-Zentro Galegoarekin batera ekoizten dira, Nazioarteko Zinemaldiaren laguntzarekin eta Seur enpresak babesturik.

Programazio honen prestigioa gero eta handiagoa da eta, 1997rako, Eusko Jaurlaritzak

babestuko duela berretsi da (hiru zikloak), baita AISGEk ere («Malas en el cine» zikloa).

**b.- Ziklo eta emanaldi bereziak**

**- Antzoki Zaharra**

Antzoki Zaharrean programatutako ziklo eta emanaldi berezien barruan, Fantasia eta Beldurrezko Zinearen Astea eta Mike Leighi eskainitako zikloa dira aipagarrienak, azkena baliabide elektronikoz jatorrizko bertsioak euskaraz azpititulaturik.

Fantasia eta Beldurrezko Zinearen Astea Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria-Sailen lankidetzaz programatzen da. Urte honetako edizioak arrakasta handia lortu du jendeari dagokionez eta sekulako oihartzuna izan du komunikabideetan, estatu-mailan nahiz nazioartekoan. Aste honek, gainera, normalean Donostia Kulturak antolatzen dituen kultur jardueretan agertzen ez diren gazte asko Antzoki Zaharrera erakartzeko aukera eskaintzen digu.

Zinearen Aste honen arrakastak Canal + telebista-katearen eskaintza sorrarazi du (une honetan negoziatzen ari garena) astearen babesle izateko interesa baitute. Eusko Jaurlaritzak, berari dagokionez, baieztatu du bere babes-laguntza.

Mike Leighi buruzko zikloak euskaraz, bestalde, erantzun egokia jaso du jendearen aldetik, eta horrek, hartu genuen bidetik, Donostia Kulturaren zine-programazio guztietan euskaraz azpititulatutako filme bat gutxienez sartzea komeni dela frogatu digu. 1997rako, hilean behin euskaraz azpititulatutako filme bat proiektatzeko aukera finkatu nahi genuke.

**- Kultur Etxeak**

Kultur Etxeetan programatzen diren ziklo eta emanaldi berezien barruan, «zinea kalean» eta «Donostia mundu artean» azpimarra genitzake.

Beste urtebetez, udan egiten diren kanpoko zine-proiekzioek ikusmin handia sortu dutelarik, 8.711 pertsona bildu zuten. Arrakasta hau, ematen diren filmeen komertzialtasunari eta gaurkotasunari zor zaio (horietako asko aste gutxi batzuk lehenago oraindik karteleratan egondakoak dira).

«Amerindia» ordeztera etorri den «Donostia mundu artean» izeneko zikloak programazioa era guztietako etnia eta herri indigenetara zabaldu du eta aurtengoan ere ikusleen eta bisitatu gaituzten gonbidatuen arteko eztabaidarako eta ideiak libreki alderatzeko topagune gisa funtzionatu du.

## 7.1.3. LANKIDETZAK

**Nosferatu**:

- Arturo Ripstein: Mexicoko Zinematografia-Institutuarekiko lankidetza

**Ziklo eta emanaldi bereziak**

- «Mugarik gabeko emakumeak»: Donostiako Udaleko Emakumearen Sailarekiko lankidetza

- «Zinea eta Erdi Aroa»: Eusko Ikaskuntzarekiko lankidetza

- «Errusiako Zinea»: Koldo Mitxelena Kulturunearekiko lankidetza

- «Mike Leigh»: British Council eta Donostiako Udaleko Euskara Patronatuarekiko lankidetza.

## 7.2.1. ZINE-PROGRAMAZIOAREN LABURPEN OROKORRA

| | EGUNAK | FILMEAK | IKUSLEAK | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|---|
| ANTZOKI ZAHARRA | | | | | |
| Prog. komertziala | 250 | 20 | 30.703 | 697 | 44 |
| Nosferatu prog. | 37 | 41 | 11.690 | 37 | 316 |
| Ziklo eta emanaldi ber. | 18 | 58 | 10.241 | 28 | 366 |
| KULTUR ETXEAK | | | | | |
| Ziklo eta emanaldi ber. | 48 | 65 | 12.202 | 48 | 254 |
| GUZTIRA | **353**[1] | **184** | **64.836** | **810** | **80** |

## 7.2.2. ZINE KOMERTZIALAREN EMAITZAK

| | EGUNAK | FILMEAK | IKUSLEAK | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|---|
| Urtarrila | 29 | 4 | 4.009 | 81 | 49 |
| Otsaila | 26 | 1 | 4.796 | 70 | 69 |
| Martxoa | 26 | 3 | 1.804 | 73 | 25 |
| Apirila | 27 | 1 | 5.132 | 78 | 66 |
| Maiatza | 23 | 2 | 2.178 | 64 | 34 |
| Ekaina | 25 | 2 | 1.184 | 68 | 17 |
| Uztaila | 9 | 1 | 1.147 | 26 | 44 |
| Abuztua | -- | -- | -- | -- | -- |
| Iraila | 14 | 2 | 911 | 42 | 22 |
| Urria | 21 | 1 | 2.643 | 60 | 44 |
| Azaroa | 25 | 2 | 3.622 | 69 | 52 |
| Abendua | 25 | 1 | 3.277 | 66 | 50 |
| GUZTIRA | **250** | **20** | **30.703** | **697** | **44** |

[1] Kontuan izan behar da egun batzuetan bi programazio ezberdinei dagozkien bi filme proiektatzen direla eta, beraz, egun horiek bi azalpen desberdinekin agertzen direla.

## 7.2.3. PROGRAMAZIO KOMERTZIALAREN FILMEKAKO BANAKAPENA

| ZIKLOA | IKUSLEAK | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|
| La reina de los bandidos | 192 | 12 | 16 |
| El techo del mundo | 346 | 18 | 19 |
| Señales de fuego | 161 | 11 | 15 |
| Hola, ¿estás sola? | 6.600 | 96 | 69 |
| Éxtasis | 3.931 | 66 | 60 |
| Pasajero clandestino | 159 | 17 | 9 |
| Flirt | 391 | 19 | 21 |
| Belle de Jour | 456 | 15 | 30 |
| Malena es un nombre de tango | 5.385 | 99 | 54 |
| El globo blanco | 240 | 10 | 24 |
| Georgia | 656 | 33 | 20 |
| I.D. (identificación) | 137 | 16 | 9 |
| El secreto de la isla de las focas | 650 | 28 | 23 |
| Más allá de las nubes | 946 | 20 | 47 |
| Fiebre helada | 323 | 21 | 15 |
| Dersu Uzala | 289 | 21 | 14 |
| La canción de Carla | 3.023 | 66 | 46 |
| Fotos | 479 | 13 | 37 |
| Más que amor, frenesí | 4.836 | 98 | 49 |
| Sol de otoño | 1.411 | 13 | 109 |
| GUZTIRA | **30.611** | **692** | **44** |

## 7.2.4. NOSFERATU PROGRAMAZIOAREN EMAITZAK

| ZIKLOA | EGUNAK | FILMEAK | IKUSLEAK | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|---|
| Hollywoodeko bigarren mailakoak eta antagonistak | 11 | 14 | 4.134 | 11 | 376 |
| Louis Malle | 13 | 13 | 3.448 | 13 | 265 |
| Arturo Ripstein | 13 | 14 | 4.108 | 13 | 316 |
| GUZTIRA | **37** | **41** | **11.690** | **37** | **316** |

ZINEA

## 7.2.5. ZIKLO ETA EMANALDI BEREZIAK

| | | EGUNAK | FIL. | IK. | EMAN. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Urtarrila** | Elf Atochem (Antzoki Zaharra) | 1 | 1 | 300 | 1 | 300 |
| **Ots-Eka eta Urr-Abe** | Haurrak Zinemara (Lugaritz) | 14 | 16 | 2.030 | 14 | 145 |
| **Martxoa** | Zinea eta Erdi Aroa (Lugaritz) | 4 | 4 | 170 | 4 | 43 |
| | I. Bideo-Mostra (Larrotxene) | 5 | 12 | 315 | 5 | 63 |
| | Mugarik gabeko emakumeak (Lugaritz) | 3 | 3 | 345 | 3 | 115 |
| **Apr-Eka** | Estreinaldiak (Antzoki Zaharra) | 2 | 2 | 475 | 2 | 238 |
| **Maiatza** | Laburmetr. berezia (Lugaritz) | 1 | 5 | 32 | 1 | 32 |
| **Ekaina** | Errusiako zinea (Antzoki Zaharra) | 3 | 3 | 218 | 3 | 73 |
| **Uzt-Abu** | Zinea kalean (Altza, Loiola, Martutene, Lugaritz eta Larrotxene) | 15 | 16 | 8.350 | 15 | 557 |
| **Urr-Aza** | Fantasia eta Beldurrezko Zinearen VII. Astea (Antzoki Zaharra) | 8 | 49 | 8.711 | 19 | 458 |
| **Abendua** | Mike Leigh euskaraz (Antzoki Zaharra) | 3 | 3 | 537 | 3 | 179 |
| **Aza-Abe** | Donostia mundu artean (Lugaritz) | 6 | 10 | 755 | 6 | 126 |
| **GUZTIRA** | | **66** | **123** | **22.443** | **76** | **295** |

# Eszena Arteak



# eta Musika

# ESZENA-ARTEAK ETA MUSIKA

8.1. - APUNTEAK

8.2. - DATURIK GARRANTZITSUENAK

Urte honetan Donostia Kulturak hiriari eskaintzen dion programazioa antolatu da, eszena-espazio desberdinetara ondoan adierazi bezala egokituz: Victoria Eugenia antzokian formato handiko ikuskizunak eskaini dira; Antzoki Zaharrean formato ertainekoak, era honetako lanen bat hilero aurkeztuz; eta Lugaritzen formato txikiko ikuskizunak eta zaletu-taldeek ekoiztutakoak. Era horretan, hirian astero-astero eszena-arteetako edo musikako ikuskizunen bat izan zedin lortu nahi izan da.

## 8.1.1. NEGUKO DENBORALDIA

1996an zehar nabarmenki gehitu da lirika-ikuskizunen programazioa, iazko 7 hilabeteetan eskainitako 2 antzezpenen aldean, 10 hilabete hauetako 11 emanalditara igaroz, 1995ean Victoria Eugenia antzokia obren ondorioz itxita egon baitzen.

Dantza-ikuskizunen programazioa ere zabalagoa izan da aurreko urtearen aldean: urte honetan 10 emanaldi izan dira, aurreko urteko 2 emanaldiren aldean.

Lirika- eta dantza-ikuskizunen programazioa areagotu izanak eragin txikia izan du hiriari eskainitako lanei dagokienez, eta neurri handiagoan eragin dio emanaldi-kopuruari, aurreko urteekin alderatuz gero:

| | LANAK | EMANALD. | IKUSLEAK | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 14 | 39 | 12.133 | 311 (7 hilab.) |
| 1996 | 16 | 42 | 14.919 | 355 |

Emanaldi bakoitzeko ikusle-kopurua zertxobait handiagoa izan arren, kezkagarria da, oraindik ere, komunikabideetan oihartzun handia duten konpainia ezagunen (Tricicle, La Cuadra...) eta horren ezagunak ez diren konpainiek eskainitako emanaldien arteko diferentzia: emanaldi bakoitzeko ikusle-kopuruen batezbestekoa 900 eta 200 ikusle bitarteko da.

Antzoki Zaharreko programazioa, hilabeteko lan batekin, egonkortu egin da. Gazteei zuzendutako eta sortzaile gazteek egindako ikuskizunak izaten dira batez ere, Euskal Herriko taldeek eginak gehienbat, eta azken hiruhilekoan antzerki gestualeko ziklo txiki bat ere eman da. Ikusle-kopurua urtez urte gehitzen doa:

| | LANAK | EMANALD. | IKUSLEAK | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 6 | 17 | 1.863 | 110 |
| 1996 | 8 | 21 | 2.889 | 138 |

## 8.1.2. UDAKO DENBORALDIA

Antzoki Zaharreko udako programaziorako irizpide komertzialei bere horretan eutsi zaie, ikusle-kopuru handia erakartzen baitute, programazioa merkatuaren unean uneko eskaintzaren menpe jarri behar den arren, eta urte honetan aukera horiek bestetan baino urriagoak izan dira:

| | LANAK | EMANALD. | IKUSLEAK | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| 1995 | 9 | 78 | 14.943 | 192 |
| 1996 | 10 | 84 | 14.406 | 172 |

## 8.1.3. EUSKARAZKO PROGRAMAZIOA

Produkzioak euskaraz burutzen dituzten Euskal Herriko konpainiei laguntza eskaintzeko irizpidearekin jarraitu dugu, emanaldi bat gutxienez hizkuntza honetan egin dezaten lortzeko helburuz.

## 8.1.4. KOPRODUKZIOAK

Donostia Kulturak Legaleón Teatro taldearen «Ubu» ikuskizunean lankidetza eskaini zuen. Ikuskizuna Antzoki Zaharrean eman zen.

## 8.1.5. HAUR-ANTZERKIA

Antzoki Zaharrean Txotxongilo taldea bakarrik programtu da taldearen 25. urteurrena ospatzen zela eta. Donostia Kulturaren haur-antzerkiari buruzko programazioa Lugaritz Kultur Etxean egin ohi da.

## 8.1.6. MUSIKA

Victoria Eugenia antzokian bertako kantautoreen musika besterik ez da programatu, lehen A.M. enpresak betetzen zuen programazioari jarraipena emanez. Programazio honek ez du jendearen erantzun egokirik jaso.

Antzoki Zaharrean «los Jueves del Principal» programazioari eutsi zaio. 1997rako, kontzertuak ziklotan bilduz eta beharrezko aurrekontua prestatu ondoren urte osora luzatuz, programazio honen berrikuspena egiteko aukera aztertzen ari gara.

# 8.2.1. ESZENA-ARTEAK

## 8.2.1.1. Victoria Eugenia antzokia

a.- Neguko programazioa

| ANTZERKIA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
| urtarr. 3-5 | BEDEREN I «Zu(t) gabe» | 627 | 3 | 209 |
| urtarr. 21 | HIKA TEATRO «Henry Bengoa Inv...» | 167 | 1 | 167 |
| urtarr. 26-28 | CALENDA TEATRO «Métele caña» | 279 | 3 | 93 |
| otsail. 2-4 | IN FRAGANTI «Hamairu trikimailu» | 424 | 3 | 141 |
| otsail. 23-25 | PENTACIÓN TEATRO «La sombra del Tenorio» | 1.173 | 3 | 391 |
| otsail. 27-28 | ZAMPANO TEATRO «El Burlador de Sevilla» | 570 | 3 | 190 |
| martx. 9-10 urri. 1 | TEATRO ABADÍA «El retablo...» | 668 | 2 | 334 |
| martx. 14-20 | TRICICLE «Entretrés» | 6.228 | 6 | 1.038 |
| apir. 12-14 | TANTTAKA «Florido pensil» | 1.218 | 3 | 406 |
| apir. 21 | BAGERA | 353 | 1 | 353 |
| apir. 30 maiatz. 1-2 | TEATRO ESTUDIO | 321 | 3 | 107 |
| ekain. 15-16 | SCENA 2.000 «Pantaleón y las visitadoras» | 544 | 2 | 272 |
| urri. 26-31 | CENTRO ANDALUZ TEATRO «Julio César» «Los borrachos» | 720 | 4 | 180 |
| azaro. 23-24 | LA CUADRA «Carmen» | 1.419 | 2 | 710 |
| azaro. 29-30 abend. 1 | YLLANA TEATRO «Glub Glub» | 208 | 3 | 69 |
| GUZTIZKOAK | | 14.919 | 42 | 355 |

## 8.2 DATURIK GARRANTZITSUENAK

### BALLETA

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| martx. 5 | BALLET PARAGUAY | 144 | 1 | 144 |
| martx. 21 | «El lago de los cisnes» | 1.090 | 1 | 1.090 |
| apir. 27-28 | CARMEN CORTÉS «Yerma» | 1.056 | 2 | 528 |
| ekain. 21 | BALLETS OLAETA | 283 | 1 | 283 |
| azar. 5-6 | BALLET DEL EJÉRCITO RUSO | 1.747 | 2 | 874 |
| azaro. 18 | CENTRO ANDALUZ DANZA Homenaje a Albéniz | 431 | 1 | 431 |
| abend. 15 | BALLET DE MUNICH «Cascanueces» | 1.566 | 2 | 783 |
| **GUZTIZKOAK** | | **6.317** | **10** | **632** |

### LIRIKA

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| urtarr. 31 otsail. 1 | MÚSICA 2001 «Porgy and Bess» | 2.218 | 2 | 1.109 |
| martx. 23-24 | MUSICA NEL MONDO «Tosca» | 1.559 | 2 | 780 |
| maiatz. 9 | MÚSICA 2001 «Aida» | 1.113 | 1 | 1.113 |
| maiatz. 23-26 | CÍA. LÍRICA ESPAÑOLA Temporada Zarzuela | 3.176 | 5 | 635 |
| azar. 13 | MÚSICA 2001 «El barbero de Sevilla» | 986 | 1 | 986 |
| **GUZTIZKOAK** | | **9.052** | **11** | **823** |

b.- Udako programazioa

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| uztail. 17 | ESKOLA DANZA TALDEA | 120 | 1 | 120 |
| uztail. 18 | «Prohibido pisar el tango» | 59 | 1 | 59 |
| uztail. 19-21 | GRUPOS FOLKLÓRICOS | 143 | 3 | 48 |
| uztail. 23-28 | MONCHO BORRAJO | 1.882 | 6 | 314 |
| abuzt. 1-4 | CRAC AL CRAC «Violinista en el tejado» | 525 | 7 | 75 |
| irail. 5-8 | PENTACIÓN «Eutanasio» | 574 | 6 | 96 |
| GUZTIZKOAK | | 3.303 | 24 | 138 |

**8.2.1.2.** Antzoki Zaharra

a.- Neguko programazioa

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| urtarr. 11-12 | PEINETA TEATRO «Mentiras» | 170 | 2 | 85 |
| otsail. 8-9 | TANTTAKA «Chiquilladas» | 562 | 4 | 141 |
| martx. 9-10 | CHARO LÓPEZ «Tengamos el sexo en paz» | 1.150 | 3 | 383 |
| apir. 25-26 | PAVANA TEATRO «Pánico contenido» | 105 | 2 | 53 |
| maiatz. 9-10 | FUNDACIONES TEATRALES «Los domingos...» | 112 | 2 | 56 |
| ekain. 27-28 | RAMÓN REMESAL «Caracuero» | 276 | 2 | 138 |
| azar. 8-10 | LEGALEÓN TEATRO «Ubú Rey» | 394 | 3 | 131 |
| abend. 6-8 | MARKELIÑE | 120 | 3 | 40 |
| GUZTIZKOAK | | 2.889 | 21 | 138 |

b.- Udako programazioa

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| uztail. 12-16 | TANTTAKA «El florido pensil» | 1.538 | 10 | 153 |
| uztail. 18-21 | COMEDIANTES B.AIRES «Orquesta señoritas» | 379 | 9 | 42 |
| uztail. 22-25 | PAVLOSKY | 419 | 4 | 104 |
| uztail. 26-31 | T. DE TEATRE «Hombres» | 2.546 | 9 | 282 |
| abuzt. 1-2 | GEROA TEATRO «Por tus muertos» | 173 | 4 | 43 |
| abuzt. 3-8 | EL MOLINO «Brinda por el Molino» | 1.568 | 12 | 130 |
| abuzt. 9-18 | Cía. PEDRO OSINAGA «Dos mejor que una» | 5.098 | 20 | 254 |
| abuzt. 19-21 | CHICOS MAMBO | 548 | 5 | 110 |
| abuzt. 23-25 | INCORRECTAS | 410 | 7 | 58 |
| abuzt. 27-29 | CARLOS LARRAÑAGA konp. | 1.727 | 4 | 431 |
| GUZTIZKOAK | | **14.406** | **84** | **172** |

**8.2.1.3.** Haur-Antzerkia

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| otsail. 4-11-25 | TXOTXONGILLO | 966 | 3 | 322 |

## **8.2.2.** MUSIKA

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| otsail. 9 | THE FLYING BURRITO BROTHERS | 285 | 1 | 285 |
| martx. 22 | URKO | 133 | 1 | 133 |
| martx. 30-31 | GOLDEN APPLE QUARTET | 785 | 2 | 393 |
| uztail. 30 | AFRIKA D. GOYENETXE | 444 | 1 | 444 |
| uztail. 6 | IMANOL | 206 | 1 | 206 |
| uztail. 7 | AMAIA ZUBIRIA | 43 | 1 | 43 |
| azar. 17 | JUAN CARLOS IRÍZAR | 53 | 1 | 53 |
| GUZTIZKOAK | | **1.949** | **8** | **244** |

## **8.2.3.** BESTE ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZA

### **8.2.3.1. Gipuzkoako Foru Aldundia**

**A.M. - VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| urtarr. 6 | ELKANOREN SEMEAK | 284 | 1 | 284 |
| otsail. 10 | XABIER LETE | 558 | 1 | 558 |
| martx. 2 | MIKEL LABOA | 814 | 1 | 814 |
| apir. 20 | LIZARDI OMENALDIA | 547 | 1 | 547 |
| GUZTIZKOAK | | **2.203** | **4** | **551** |

| MAIATZA DANTZAN | | | | |
|---|---|---|---|---|
| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
| maiatz. 4-5 | S.O.A.P. DANCE THEATRE | 501 | 2 | 250 |
| maiatz. 11 | VICENTE SÁEZ konp. | 283 | 1 | 283 |
| maiatz. 12 | METROS konp. | 209 | 1 | 209 |
| maiatz. 18-19 | CAROLYN CARLSON | 746 | 2 | 373 |
| maiatz. 25 | SENZA TEMP konp. | 94 | 1 | 94 |
| maiatz. 26 | MAR GÓMEZ konp. | 76 | 1 | 76 |
| GUZTIZKOAK | | 1.909 | 8 | 239 |

### 8.2.3.2. Donostiako Udaleko Gazteria-Saila

| JUEVES DEL PRINCIPAL - ANTZOKI ZAHARRA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
| otsail. 1 | SORDERITA | 195 | 1 | 195 |
| otsail. 29 | ALBERT PLÁ | 466 | 1 | 466 |
| martx. 14 | PEDRO GUERRA | 140 | 1 | 140 |
| apir. 11 | NACHO CAMPILLO | 171 | 1 | 171 |
| maiatz. 16 | RUPER ORDORIKA | 316 | 1 | 316 |
| ekain. 20 | VÍCTOR COYOTE | 43 | 1 | 43 |
| GUZTIZKOAK | | 1.331 | 6 | 222 |

## ESKOLAKO ANTZERKI-MOSTRA - ANTZOKI ZAHARRA

| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
|---|---|---|---|---|
| apir. 15 | INJINERU-ESKOLA «Una mujer sin importancia» | 121 | 1 | 121 |
| apir. 16 | COMPAÑÍA DE MARÍA «Perdido en Yonkers» | 150 | 1 | 150 |
| apir. 19 | PEÑAFLORIDA INSTITUTUA «Anda mi madre» | 385 | 1 | 385 |
| apir. 22 | ZUZENBIDE FAKULTATEA «Jacques o la sumisión» | 127 | 1 | 127 |
| apir. 23 | USANDIZAGA INSTITUTUA «Juegos de apertura» «Ubú Rey» | 314 | 1 | 314 |
| apir. 24 | BIDEBIETA INSTITUTUA «Los pelópidas» | 364 | 1 | 364 |
| apir. 29 | ALTZAKO INSTITUTUA «La casa de Bernarda Alba» | 498 | 1 | 498 |
| apir. 30 | AXULAR LIZEOA «Bernarda Albaren Etxea» | 311 | 1 | 311 |
| maiatz. 2 | BARANDIARAN LIZEOA «Burges txikien eskontza» | 173 | 1 | 173 |
| maiatz. 3 | MANTEO INSTITUTUA «Urperatutako jardinak» | 81 | 1 | 81 |
| maiatz. 7 | HERNANIKO INSTITUTUA «Yo, Ana» | 308 | 1 | 308 |
| maiatz. 8 | COLEGIO CARMELO «Historia de una escalera» | 195 | 1 | 195 |
| maiatz. 13 | SAN PATRICIO «La fierecilla domada» | 322 | 1 | 322 |
| maiatz. 14 | COLEGIO ALEMÁN «La estanquera de Vallecas» | 427 | 1 | 427 |
| maiatz. 15 | I.S.S.A. «Las troyanas» | 207 | 1 | 207 |
| maiatz. 16 | ERRENTERIAKO ANTZERKI-ESKOLA «Para comerte mejor» | 205 | 1 | 205 |
| maiatz. 17 | ZURRIOLA IKASTOLA «Holdi gazteak mintzo» | 150 | 1 | 150 |
| maiatz. 20 | LASARTEKO INSTITUTUA «Jugando con escenas» | 19 | 1 | 19 |
| maiatz. 21 | ALTZAKO INSTITUTUA «Los 90 son nuestros» | 118 | 1 | 118 |
| maiatz. 22 | K. MITXELENA ORERETA «La cocina» | 330 | 1 | 330 |
| maiatz. 23 | SOSLAI ARGAZKIGINTZA-ESKOLA «Locos de amor» | 30 | 1 | 30 |
| maiatz. 27 | ZURRIOLA IKASTOLA «Ez beste kantarik eskeini» | 346 | 1 | 346 |
| maiatz. 28 | SANTO TOMAS LIZEOA «Magia express» | 282 | 1 | 282 |
| maiatz. 29 | COLEGIO SAN IGNACIO «Pic nic» | 223 | 1 | 223 |
| maiatz. 30 | C. ESTUDIOS TEATRALES «La Celestina» | 449 | 1 | 449 |
| GUZTIZKOAK | | 6.135 | 25 | 245 |

### 8.2.3.3. Abesbatzen Federazioa

| DONOSTIAN KANTUZ - VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
| urtarr. 7 | GABON KANTUZ | 443 | 1 | 443 |
| uztail. 9 | KIMETS GOIARGI. ERBATZ | 60 | 1 | 60 |
| ekain. 29-30 | «El Caserío». CORO ITSASO | 1.843 | 2 | 921 |
| GUZTIZKOAK | | **2.346** | **4** | **587** |

### 8.2.3.4. Syntorama

| FESTIVAL DE NUEVAS MÚSICAS - VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
| uztail. 2 | BILL DOUGLAS | 301 | 1 | 301 |
| urri. 9 | ALASDAIR FRASER | 536 | 1 | 536 |
| GUZTIZKOAK | | **837** | **2** | **419** |

### 8.2.3.6. Get In

| DONOSTIAN KANTUZ - VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| EGUNA | TALDEA/IZENB. | IKUSL. | EMANALD. | EM./IKUSL. |
| ekain. 23 | NOA | 876 | 1 | 876 |
| urri. 13 | ROSANA | 1.086 | 1 | 1.086 |
| abend. 26 | CARLOS NÚÑEZ | 588 | 1 | 588 |
| GUZTIZKOAK | | **2.550** | **3** | **850** |

## 8.2.4. ANTZOKIEN ALOKAIRUA

| VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN ALOKAIRUAK | | |
|---|---|---|
| ENTITATE/ENPRESA | ALOKAI./LANKID. | EGUN-KOP. |
| EUSKADIKO ORKESTRA | ALOKAIRUA | 27 |
| CULTURA MUSICAL | ALOKAIRUA | 28 |
| MUSIKA HAMABOSTALDIA | ALOKAIRUA | 26 |
| ZINEMALDIA | ALOKAIRUA | 14 |
| SYNTORAMA | LANKIDETZA | 2 |
| GET IN | LANKIDETZA | 3 |
| ORFEOI DONOSTIARRA | LANKIDETZA | 1 |
| EASO ABESBATZA | LANKIDETZA | 1 |
| BAGERA | LANKIDETZA | 1 |
| ENPRESAK | ALOKAIRUA | 16 |
| ELKARTEAK | ALOKAIRUA | 4 |
| E.T.B. | LANKIDETZA | 2 |
| AUDITOREEN KONGRESUA | ALOKAIRUA | 2 |
| EUSKAL AKTOREN BATASUNA | LANKIDETZA | 2 |
| PEDAGOGIA-KONGRADUA | ALOKAIRUA | 1 |
| PUBLIZITATE-ZINEMALDIA | ALOKAIRUA | 3 |
| EUSKADIKO ORKESTRA-MATINALES | LANKIDETZA | 3 |
| ALDUNDIA MAIATZA DANTZAN | LANKIDETZA | 9 |
| ZINEMALDIA | LANKIDETZA | 4 |
| **GUZTIZKOAK** | | **149** |

Egun-kop.: 149

Alokairuak: 121

Lankidetzak: 28

## ANTZOKI ZAHARRAREN ALOKAIRUAK

| ENTITATE/ENPRESA | ALOKAI./LANKID. | EGUN-KOP. |
|---|---|---|
| ZINEMALDIA | ALOKAIRUA | 10 |
| ENPRESAK | ALOKAIRUA | 2 |
| SINDIKATOAK/ALDERDI POL. | ALOKAIRUA | 2 |
| IRUDI BIZIAK-S.DROGODEP. | ALOKAIRUA | 10 |
| EUSKERA ZINE ARETOA | LANKIDETZA | 14 |
| KONTSERBATORIOA | LANKIDETZA | 2 |
| GAZTERIA SAILA- HIES KONP. | LANKIDETZA | 3 |
| TOLERANTZIAREN SINEGO. | LANKIDETZA | 2 |
| EUSKADIKO ORKESTRA-MATINAL | LANKIDETZA | 1 |
| MAIATZA DANTZAN | LANKIDETZA | 4 |
| ESKOLA-ANTZERKIA / GAZT. SAILA | LANKIDETZA | 25 |
| HEGOA | LANKIDETZA | 5 |
| MOVIERECORD | LANKIDETZA | 1 |
| **GUZTIZKOAK** | | **81** |

Egun-kop.: 81

Alokairuak: 24

Lankidetzak: 57